

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Zallako Udala**

2018/19 urteetako elitekotzat hartutako kirolarientzako udalerrriko diru laguntza.

Aurrekariak

Ikusi da udal honek kirola sustatu nahi duela herritarren artean.

Ikusi da erraztasunak eman nahi dituela udalerrian elitekotzat hartutako kirola egiteko.

Legezko xedapenak

- Udal Diru Laguntzen Estrategia Plana.
- Udalaren Diru Laguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2017ko irailaren 15ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Diru Laguntzen Oinarri Espezifikoak.
- 2018ko irailaren 19an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Diru Laguntzen Oinarri Espezifikoaren aldaketa.

Honen bidez, Zallako Udaleko alkate-udalburu Juan Ramón Urkijo Etxeguren jaunak

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:

«Udalerrian elitekotzat hartutako kirolarientzako diru-laguntzak» esleitzeko deialdia onestea, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntza hauek 2019. urterako udal-aurrekontuen 2.3411.48001 partidaren kargura emango dira, eta 6.383,48 euro izango da gehieneko zenbatekoa.
- Diru-laguntza hauen helburua da elitekotzat hartutako udalerriko kirolariei laguntzea beren kirol-ibilbidean oinarrietan ezarritako kirol-merituetakoren bat lortzen.
- Hona hemen oinarri horien helburuak:
 - 1) Eliteko kirolari gehiago egotea udalerrian.
 - 2) Eliteko kirol-jarduera sustatzea ezintasuna duten pertsonen artean.
 - 3) Etorkizunean eliteko kirolari izan daitezkeen kirol-talentuei laguntzea eta hala-koak bilatzea.
- Horretarako guztirako, udal-mailan kirol-elitetzat jotzen da udalerrri honentzat interesgarri den kirol-jarduera, kirol-garapenaren funtsezko faktorea den heinean; izan ere, oinarritzko kirola sustatzen du, aintzat hartuta prestaketak dituen eskakizun teknikoak eta zientifikoak, eta Zallako Udala ordezkatzeko delako nazioan eta nazioartean egiten diren lorpenetan, probetan eta lehiaketetan.
- Hori dela eta, oinarri hauek finkatu dira diru-laguntzak norgehiagoka-araubidean emateko.
- Deialdi honetarako, 2018ko irailaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartean lortutako kirol-merituak hartuko dira kontuan.
- Diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 1etik 31ra bitartekoa izango da, eta udal-erregistroaren zerbitzuetan aurkeztu beharko dira (HAZ eta Arangune).
- Diru-laguntzak ebazteko gehieneko epea 2019ko abenduaren 31 izango da.
- Halaber, erabaki da deialdi hau Zallako Udalaren informazio-bidean, iragarki-taularen, Udalaren webgunearen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bitartez argitaratuko dela.

Zallan, 2019ko irailaren 13an.— Alkatea, Juan Ramón Urkijo Etxeguren